



ESKOLAKO OHARRAK

Ordutegi aldaketa

Orain dela bi urte 2018/19 ikasturtean eskolako ordutegia aldatu genuen eta aldaketa hori 2019/2020 ikasturtean gauzatu genuen. Eskolako klaustroak aldaketa honen inguruan egindako balorazioa jakinarazi nahi dizuegu.

Egunerokotasunean eskola osoan 14:45-15:00etara irakurketa sistematizatzea ekarri du. Lehen hezkuntzan zein Haur hezkuntzan irakurketarekin erlazioa duten jarduerak egiten dira (irakurketa kalean, irakasleak irakurtzen die liburu baten pasarteak egunero, bakarkako irakurketa, ikasleek kontatzen dute ipuina...). Jarduera sistematizatzeak ikasleei segurtasuna emateaz gain, autonomia ere ematen die eta ikasleak hobeto kokatzen dira ikasketa prozesuan. Gelara iritsi bezain pronto badakite liburua hartu eta irakurtzen jarri behar dutela, ondorioz arratsaldea giro lasai batean hasteko aukera ematearekin batera, ikasleekin jardun eta ekintza gehiago egiteko aukera ematen digula ikusi dugu. Klaustrokideen aldetik onurak besterik ez dira ikusten.

Klaustrokideen aldetik onurak besterik ez dira ikusten.

Hala ere, zuen balorazioa jakitea ezinbestekoa iruditzen zaigunez, gaur galdetegi bat jasoko duzue zuen eskolako @elizalde.eus helbide elektronikoan. Tarte txiki bat hartzea galdetegia betetzeko izugarri eskertuko genizueke.

Adeitasunez

Elizalde Herri Eskolako Klaustroa.



APARKALEKUA

Familia guztiei gogorarazi nahi dizuegu, eskolako aparkalekua eskolako langileek soilik erabili dezaketela. Familia batzuek oraindik errespetatzen ez dutenez, Udaltzainak jakinaren gainean jarriko ditugu modu desegokian erabiltzen den bakoitzean.



ERREFERENTE FEMINISTAK

Tewhida Ben Sheikh

Tewhida Ben Sheikh Tawhida Ben Cheikh edo Taouhida Ben Cheikh bezala ere ezaguna (Tunisia, 1909ko urtarrilaren 2a - Tunisia, 2010eko abenduaren 6a) Tunisiako lehen emakume musulmana izan zen batxilergoa lortu zuena (1928), eta lehen mediku, pediatra eta ginekologoa izan zen. Pediatrian eta, ondoren, ginekologian espezializatu, aitzindaria izan zen sexu-osasunean, batez ere antisorgailuak eta abortua lortzea erraztuz. 2020ko martxoan, Tunisiako Banku Zentralak Ben Cheikh doktorearen irudiarekin igorritako 10 dinarreko billete bat zirkulazioan jarri zuen, Afrikako iparraldean legezko billete batean agertzen den lehen emakumea izanik.



ABARAXKA

IPIUNAK SORTZEN

APIRILAK 24, LARUNBATA

16:30ETAN ABARAXKAN

AFOROA DELA ETA 645005496

ZENBAKIAN IZENA EMAN

IPIUNAK GUSTUKO?

ZATOZ ABARAXKARA!

IPIUNAK SORTU, KONTATU, ENTZUN ETA MARRAZTUKO DITUGU!

Informazio gehiago: www.elizalde.eus y www.elizaldekogurasoelkarte.blogspot.com.es



